



ONDARE ZERBITZUAREN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PORTUEN ETA ITSAS GARRAIOAREN LEGE AURREPROIEKTUARI BURUZKOA.

Txosten hau Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta itsas garraioaren legearen aurreproiektuari buruzkoa da. Txostena egiteko, Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluan xedatutakoa aplikatu da.

Ondarearen ikuspuntu hutsetik, beharrezkoa da zenbait aipamen egitea aurkeztutako aurreproiektuaren artikuluei buruz.

I.- 12. artikulua.- Portuko Espazio eta Erabileren Mugaketa.

Portuko Espazio eta Erabileren Mugaketan, komunitate-erabilera publikoen aurreikuspenaren falta sentitzen da, portu-erabilerako kategoria bereizi gisa.

Portu-erabileren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren titulartasuneko zerbitzu publikoak emateko erabilerak sartzea proposatzen da, "komunitate-erabilera publikoak" izenaren pean, adibidez.

Erabilera horiek sartzeko proposamena oinarritzen duten argudioak hauek dira:

1.- Portuko jardueraren eta portuetako udalerrri eta hirietako eguneroko jardueraren arteko ezinbesteko bizikidetzak baketsua ahalbidetuko litzateke. Hori Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren Lege-aurreproiektuaren gidalerroetako bat da, bidalitako Justifikazio Memoriaren arabera.

2.- Administrazio honen titulartasunekoak diren zerbitzu publikoak mugatzen dira, hain zuzen ere, portuak kokatzen diren udalerrietako bizitarako ezinbestekoak direlako, horietako asko herri eta hirietako hiriguneetan baitaude.

3.- Portu-araubideak portuaren barrutian duen lehentasunaren ondorioz, beharrezkoa da herriko biztanleentzat onuragarriak diren zenbait ekipamendu publiko ezartzeko aukera aurreikustea portu-araudian, horrek portu-jarduerari inolako kalterik ez eragiteko moduan.

3.- Lege Aurreproiektuak, Laugarren Xedapen Iragankorrean, portuetako zerbitzuguneetako bizitegi-erabilera pribatuak finkatzen dituzenez, ez dirudi eragozpenik egon beharko litzatekeenik horretarako erabilera hori oinarritzko zerbitzuak emateko baldin bada, hala nola, osasun- edo hezkuntza-zerbitzua.

4.- Lege Aurreproiektuak, 12.2.d) artikuluan, portu-erabileratzat hartzen ditu Industria- eta merkataritza-erabilerak, eta honela definitzen ditu: *"merkataritzako, industriako edo merkataritza industrialeko izaera izan, eta portuko zerbitzuak izan gabe ere, zerbitzugunean egin daitezkeenak baldin*

badira, eta baldin ez badira lege honetako paragrafo hauetan aipatzen diren jarduerak". Irabazi asmoa duten industria- eta merkataritza-erabilerak onartzen badira, onartu beharko lirateke, halaber, herritarrentzat oinarritzakoak diren zerbitzu publikoak emateko erabilerak.

Aurreproiektuaren 12.2 artikuluari letra bat gehitzea proposatzen da, testu honekin:

"Erkidegoko erabilera publikoak: Euskal Autonomia Erkidegoaren titulartasunekoak diren zerbitzuak ematen dituzten jarduerak dira."

Azkenik, terminoen zuzenketa bat egitea iradokitzen dugu. Gure ustez, 12.2.d) artikulua amaierako hitz-tarteak hau izan beharko luke: "...eta baldin ez badira lege honetako aurreko paragrafoetan aipatzen diren jarduerak." eta ez "*paragrafo hauetan*"; izan ere, e) letrak (artikulu horretako azkena) ez du jarduera berririk aipatzen; aitzitik, erabilera mistoak aipatzen ditu, edo aurreko paragrafoetan aipatzen diren portu-guneetako berezko erabileretan aniztasuna dutenak.

II.- 22.5. artikulua.- KAIAKen araubide juridikoa.

22.5 artikulua xedatzen duenez, KAIAK onuradun izan ahalko da portuko azpiegiturak eraikitzeko, eraberritzeko edo hobetzeko obrak egiteko beharrezkoak diren lursailen desjabetzeetan. Hori guztia Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legean eta haren Erregelamenduan xedatutakoarekin bat etorritz.

Desjabetzeen onuradun dira desjabetutako ondasunen jabetza hartzen dutenak; beraz, Aurreproiektuaren 22.5 artikulua ahalbidetzen ari da KAIAK ondasun higiezin jabe izatea.

Aurreikuspen hori honen aurkakoa da:

1.- Euskadiko Ondareari buruzko Legearen 6.1 artikulua, hau xedatzen baitu (lege hori indarrean dago, eta haren Testu Bateginak, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak onartu zuen): "Euskadiko ondare barruan baldin badaude, ondasun higiezin jabetza, higiezin eskubide errealen eta errentamendu-eskubideen titulartasuna eta gorputzik gabeko jabetza-eskubideen titulartasuna Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrari dagokio, horien erabiltzaile, sortzaile edo eskuratzzaile edozein erakunde dela ere;"

2.- Aurreproiektuaren beraren 25.d) artikuluan xedatzen denez, KAIAKek baliabide ekonomiko hauek izango ditu: "d) Euskadiko Ondareari buruzko araudiari jarraituz Agentziaren ondarea osatzen duten ondasun eta balioak eta horietatik jasotzen dituzten produktuak eta errentak."

Aurreproiektutik ez da eratortzen ondare-araubide arrunta aldatzeko borondaterik; beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas

Garraioaren Lege-aurreproiektuaren 22. artikuluko 5 zenbakia ezabatu egin behar da.

31.2. artikulua. Zerbitzugunea erabiltzeko araubidea.

12.2 artikuluari letra berri bat gehitzeko proposamena onartzen bada, eta arauaren testua koherentea izan dadin, erabilera berria txertatu beharko da zerbitzugunearen erabilerari buruz 31.2 artikuluan jasotzen den erabileren zerrendan.

ONDORIOAK:

Lehena.- Aurreproiektuaren 12.2 artikuluari letra bat gehitzea proposatzen dugu, komunitate erabilera publikoei lekua emateko. Proposamen hori onartuz gero, Aurreproiektuaren 31.2 artikuluko erabileren zerrendan txertatu beharko da.

Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren Lege-aurreproiektuaren 22. artikuluko 5 zenbakia ezabatzea proposatzen dugu.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko otsailaren 23a.

Izpta.: M^a JESUS AZTIRIA AGIRRE
ONDARE ZERBITZUKO ARDURADUNA

Ontzat emana

Izpta.: NEREA LOPEZ-URIBARRI GOKOLEA
ONDARE ETA KONTRATAZIOKO ZUZENDARIA